

Transmisio sexualeko gaitzak Gerra Zibilean



Ainhoa Semper

Historian Lizentziatua

Laburpena

Lan honetan Gerra Zibilaren esparru ezkutu edo ilun samar bat jorratuko da: urte horietan soldaduen artean sortu zen transmisio sexualeko gaixotasunen arazoa. Horrek emakumeak gerran izan zuen papera aztertzeraz garmatza; zorionez, azkeneko urteetan nahiko oparoak izan dira esparru honen inguruko argitalpenak, baina oraindik aztertzeke daude garai horretan soldaduek emakumeekin, eta zehazki prostitutekin, eduki zituzten sexu harremanak.

Sarrera

Lan honetan, Gerra Zibilaren esparru ezkutatu edo ilun samar bat jorratuko da: urte horietan soldaduen artean sortu zen transmisio sexuareko gaixotasunen arazoa. Horrek emakumeak gerran izan zuen papera aztertzea garrantzitsua; zorionez, azkeneko urteetan nahiko oparoak izan dira esparru honen inguruko argitalpenak, baina oraindik garai horretan soldaduek emakumeekin, eta zehazki prostitutekin, eduki zituzten sexu harremanak aztertzeke daude.

Harreman horien inguruan sortutako transmisio sexuareko gaixotasunek kezka nabaria sortu zuten garai hartako gizartean, eta nolabait aurre egin behar izan zioten egoera horri gerran borrokan ari ziren bi aldeek (errepublikarrek eta nazionalak). Hori ikertu nahian, soldaduen artean zabalduetako transmisio sexuareko gaixotasunen aurrean Gerra Zibileko bi aldeek fenomenoari aurrea hartzeko edo geldiarazteko hartu zituzten neurriak eta erakutsi zuten jarrera aztertzea da lan honen helburua. Beraz, ondorengo orrietan esparru ilun hori apur bat argitzen saiatuko gara.

Lan honen esparru kronologikoari eta geografikoari dagokionez, arazoak Euskadiko hiru lurraldeetan izan zuen sakotasuna aztertuko da, gerra hasieratik (1936ko uztailetik) Bilbo nazionalen eskuetan erori arte (1937ko ekainera arte). Esparru kronologiko nahiko labur hau hartu da, ordura arte Euskadin alde errepublikarra eta nazionala zeudelako indarrean (gainera, gerran euskal gobernuak jaio zen); horrela, arazoaren aurrean bi aldeek Euskadin hartutako jarrera ikus daiteke, hortik aurrera dena nazionalen menpe gelditu zen eta.

Prentsa eta agiritegietara jo da aipatutako helburua betetzeko: lehenengoaren bidez alde bakoitzak zabalduetako iritzia eta eginiko propaganda ikusi ahal izan da; eta bigarrean, hartutako neurri legalak aurkitu dira. Beraz, lan hau bi iturri horietan oinarritu da, ahozko iturria baztertua. Egoera hori bizitu zuten soldaduen esperientziarekin kontaktua hartzeko aberasgarria izango litzateke, baina lanaren ikuspegia orokorragoa denez, egunkarien azterketaren bidez bildu dira talde edota alderdien iritziak, hots, herritar talde ezberdinen ikusmoldeak.

Testuingurua

Dakigun bezala, Espainiako Gerra Zibila 1936ko uztailaren 17ko altxamendu militarren ostean piztu zen, eta hurrengo hiru urteetan, 1939ko apirilera arte, borrokan aritu ziren alde errepublikarra eta nazionala, nagusitasuna ezartzearen.

Gerra honetan, aurrez aurre aurkitu ziren bi mundu edo bizitzeko era: bata, tradizionala (katolikoa, lurjabe handiak, boterea gutxi batzuen eskuetan...) eta bestea, irekiagoa (praktika

demokratikoa, estatu laikoa...). Emakumearen esparruan ere bi mundu horiek kontrajarriak ziren: M^a Cruz Rubio Liniers eta M^a del Rosario Francok aipatzen dutenaren arabera,¹ alde nazionaleko Sección Femeninak emakume tradizionalaren goraipamena egin zuen; alde errepublikarreko erakunde eta elkarteek, aldiz, emakumearen askapenerako borroka egin zuten (esparru honetan, lan handiena Mujeres Libres erakundeak egin zuen).

Altxamendu militarren aurrean, hainbat emakumek beren kontzientzia politiko eta sozialagatik edota arrazoi pertsonalengatik (senargaia, senarra edo hurbilekoren bat frontera joan zelako) fronteetara jo zuten, altxamendua zapaltzeko. Baina gutxi iraun zuen emakumearen presentziak fronteetan: haien lana erretagoardian balioetsuagoa izango zela erabaki zuen gobernuak eta «gizonak fronteetara eta emakumeak erretagoardiara» esaldia zabaldu zen.

Emakumea frontetik ateratzeko arrazoiak arlo hori ez ezagutzea eta Errepublikak Ejertzito Popularra osatzea izan ziren; garai horretan, European, gizonezkoek bakarrik osatzen zuten ejertzittoa eta, ondorioz, Espainian ere emakumea esparru horretatik baztertu behar zen. Arrazoi horiei transmisio sexualeko gaixotasunen arazoa gehitu zitzaien: gerra hasi zenetik gaixotasun horiek soldaduen artean zabaltzea arazo bihurtu zen, eta fenomeno horrekiko kezka handituz joan zen. Giro horretan, 1936ko udazkenetik aurrera, fronteko emakumeekin lotu zen prostituzioa, eta berehala zabaldu zen emakume milizianoak frontean prostituzioan ari zirela. Ideia horren ondorioz beharrezkotzat hartu zen emakumeak frontetik itzultzea, gaixotasun benereok gutxituko baziren. Erabaki horren ondorioz, 1937ko hasierarako emakume gehienak frontetik desagertu ziren. Beraz, Ingrid Strobl-ek zehaztu zuenez,² lan-jantzi urdina ohorezko jantzia izan zen gizonezkoarentzat, emakumearentzat, aldiz, prostituzioaren sinboloa.

Urte horietan gaixotasun benereok zabaltzea gerraren beraren egoerarekin lotu behar da: Francisco Nuñez Roldanek³ zein Juan Eslava Galán⁴ zehazten dutenez, gerrak bizitza egunetik egunera bizitzea ekarri zuen, hots, heriotzaren hurbiltasunak une bakoitza aprobetxatzeko ahalegina ekarri zuen. Horrek maitasun klandestinoetara bultzatu zituen soldaduak (gogoan izan behar da maitasun librearen ideia gizarte horretako esparru batean behintzat zabaltzen zihoala) eta horren gabezia, prostituziora. Mary Nash-en ustez,⁵ gaixotasun

¹ Rubio Liniers, M^a C. eta Ruiz Franco, M^a R. (2003): «Presencia, participación e ideología de las mujeres en la guerra civil española a través de dos revistas: *Mujeres Libres* y *Revista para la mujer*» in Nash, Mary eta Tavera, Susanna, *Las mujeres y las guerras. El papel de las mujeres en las guerras de la Edad Antigua a la Contemporánea*, Bartzelona, 502-525.

² Strobl, I. (1996): «La resistencia en Europa Occidental. España», in Strobl, Ingrid, *Partisanas. La mujer en la resistencia armada contra el fascismo y la ocupación alemana (1936-1945)*, Bartzelona, 39-74.

³ Nuñez Roldán, F. (1995): *Mujeres Públicas. Historia de la prostitución en España*, Temas de Hoy, Madril.

⁴ Eslava Galán, J. (1993): *El sexo de nuestros padres. Un libro indispensable que ayuda a comprender muchos misterios de nuestra historia reciente*, Editorial Planeta, Bartzelona.

⁵ Nash, M. (1999): *Rojas: las mujeres republicanas en la Guerra Civil*, Grupo Santillana Ediciones, Madril.

benereokiko kezka hazteak ez du esan nahi prostituzioa hazi zenik, baina gainontzeko egile guztiek, besteak beste, Carmen Alcaldek⁶ edo Jean-Louis Guereñak,⁷ Gerra Zibilean jarduera hori ugaritu egin zela defendatzen dute, gerra guztietan gertatzen den bezala.

Jean-Louis Guereñaren⁸ arabera, eskaintza zein eskaria haztearen ondorioz egin zuen gora prostituzioak: batetik, soldaduek dirua zuten eta bestetik, bizi zuten egoera ekonomiko txarra gainditzeko edo soilik bizirauteko, emakume askok beren gorputzak saldu behar izan zituzten.

Egoera horren aurrean (transmisio sexualeko gaitzen hedapena, prostituzioaren gorakada...), hainbat autorek baieztatzen dutenaren arabera (Mary Nash,⁹ Francisco Nuñez Roldan¹⁰ edo Jean-Louis Guereñak¹¹), Espainia mailan, gobernu errepublikarra gaixotasun benereoen aurkako neurriak ezartzen zentratu zen, prostituzioaren arazoa ukitu gabe. Baina alde errepublikarrean, talde ezkertiarren artean, prostituzioaren kontrako mugimendua sortu zen, jarduera hori gizarte burgesaren ondoriotzat jotzen baitzuten. Mary Nashen esanetan,¹² oro har, komunista, sozialista eta anarkisten ustez, prostituzioa gizarte kapitalistaren beharrezko erakundea zen bi arrazoirengatik: lehena, ekonomikoa (prostitutak talde proletariokoak ziren eta bezeroak, aldiz, burgesak) eta bigarrena, soziala (prostitutei esker mantentzen zen emakume burgesen birjintasuna). Baina irakurketa hori oso sinplista zen ezkerreko emakume askoren ustez; izan ere, haien iritziz, prostituzioa amaitzeko, alde batetik, irtenbide ekonomiko bat bilatu behar zen eta bestetik, berriro hezi behar ziren gizonezkoak.

Aurreko autorearen lanen arabera, Espainia mailan, prostituzioaren aurkako erakunde aktiboena Mujeres Libres izan zen. Hasieran, horien irakurketa ere klasista izan zen, baina prostituzioko bezeroak ere langileak zirela ohartu ziren (Carmen Alcalderen arabera,¹³ prostituzioan moral iraultzailea moral burgesetik oso hurbil zegoen). Ondorioz, elkarre hori ikuspuntu klasistatik generoko irakurketara pasa zen: esplotazio ekonomikoaren oinarritzko biktimak ziren prostitutak eta gainera, klaseartekoa zen emakumearen zapalkuntza. Ildo horretan, Mujeres Libres gaixotasun benereoz baino gehiago prostitutez arduratu zen eta eginkizun horretan, emakumeak prostituziotik atera eta berriro gizartean barneratzeko *Liberatorios de prostitución* deiturikoak eratu zituzten. Ez zuten arrakasta handiegirik izan, batez ere ez zutelako babes ofizialik lortu.

⁶ Alcalde, C. (1976): *La mujer en la Guerra Civil española*, Cambio 16, Madril.

⁷ Guereña, J.-L. (2003): *La prostitución en la España Contemporánea*, Marcial Pons Ediciones de Historia, Madril.

⁸ Ikusi 7. oharra.

⁹ Ikusi 5. oharra.

¹⁰ Ikusi 3. oharra.

¹¹ Ikusi 7. oharra.

¹² Ikusi 5. oharra.

¹³ Ikusi 6. oharra.

Alde errepublikarrean hartu zen jarrera hori. Nazionalek, berriz, ez zuten arazoaren aurrean askorik esan: ideia moral eta kontserbadoreak defendatu arren, beren soldaduek prostituziora jotzen zuten eta Jean-Louis Guereñak aipatu bezala,¹⁴ autoritatearen aldetik nolabaiteko tolerantzia gertatu zen. Gainera, ez zuten inolako oztoporik jarri ez Elizak ezta Sección Femeninak ere.

Espania osoan zabaldu ziren gaixotasun benereoak soldaduen artean; Euskadin ere gertatu zen, eta Muñoz Riverok,¹⁵ besteak beste, ematen du horren berri. Horren aurrean, euskal frontean, 1936ko bukaeran, gaixotasun horiek tratatzeko hainbat gune ezarri zirela aipatzen da Riveroren artikuluan, gehienak milizien kontzentrazio handieneko guneetan. Arestian esan bezala, Euskadin, arazoaren aurrean, gerrako bi aldeek hartutako jarrerak eta neurriak aztertuko ditugu lan honetan.

Arazoa ekiditeko jarritako legeak

Aipatutako gaixotasunen hedapena geldiarazteko, hainbat neurri legal hartu ziren alde errepublikarrean. Alfredo Espinosa, Eusko Jaurlaritzako osasun kontseilariak 1936ko urriaren 15ean Fernando Unceta osasun militarreko buruari bidalitako erantzunean agertzen dira lehen neurriak. Milizianoen arteko gaixotasun benereoen zabalkuntza geldiarazteko derrigorrezko neurriak hartu zirela jakinarazi zion Espinosak Uncetari. Eusko Jaurlaritzako osasun-zaingoak indarrean jarritako neurri horiek bi izan ziren. Batetik, Blenocol botika azkar ekoizteko eskatu zen, tubo indibidualetan; eta epe laburrean milizianoen eskuetan egotea espero zen. Bestetik, higie-ne sexualari buruzko 50.000 liburuxka inprimatzeko agindu zen, milizianoen artean banatzeko.¹⁶

Ia hilabete geroago, 1936ko azaroaren 4an, milizianoek egindako hainbat eskaera jakinarazi zizkion Espinosak Uncetari, komenigarria zena egiteko. Eskaera horietan, transmisio sexualeko gaixotasunak sendatzeko gelak ezartzeko eskatzen zuten milizianoek.¹⁷

Ondoren, 1936ko azaroaren 24an, Eusko Jaurlaritzako osasun-zaingoak higie-ne-a zabaltzeko helburuarekin kontseilu tekniko bat osatzea erabaki zuen eta kontseilu horretako teknikari bakoitza alor hauetako batean espezializatuta egon behar zen: eskoletako higie-ne-a, umeen higie-ne-a, higie-ne mentala edo psikiatrikoa, transmisio sexualeko gaixotasunen aurkako

¹⁴ Ikusi 7. oharra.

¹⁵ Muñoz Rivero, M^a T. (1996): «La sanidad militar en Euskadi durante la Guerra Civil (1936.1937)», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Donostia, 1.Tomoa, 213-320.

¹⁶ *Oficio de Alfredo Espinosa a Fernando Unceta*, 1936/X/15, M-874/ 2-8, Bilbo.

¹⁷ *Oficio de Alfredo Espinosa a Fernando Unceta*, 1936/XI/04, M-865/ 2-8, Bilbo.

borroka, hiri eta baserrietako higiena, minbiziaren eta tuberkulosiaren aurkako borroka eta trakoma eta paludismoaren asistentzia.¹⁸

Ondoren, 1937ko urtarrilaren 22an, Eusko Jaurlaritzak gaiaren inguruko azkeneko neurria hartu zuen. Horretan, azkenaldian milizianoen bajak gutxitzeko arrazoi nagusia emakume milizianoak frontetik desagertzea izan zela baieztatu zuen Uncetak, baina baten batzuk gelditzen zirenez, horiek ere kanporatu beharra aipatzen zuen, gaixotasunen zabalkuntza kontrolatuko bazen, behintzat.¹⁹

Horiek izan ziren Euskadin, alde errepublikarrean, gaixotasun benereok gutxitzeko jarritako legeak. Nahiko urriak izan zirela esan badaiteke ere, alde nazionalean ez da bakar bat ere aurkitu.

Arazoaren aurrean prentsaren bidez erakutsitako jarrera

Prentsaren bidez ezagutu ahal izan da transmisio sexualeko gaixotasunen zabalkundearen inguruan gerran zeuden bi aldeek zuten iritzia eta hartutako jarrera, hein batean, behintzat.

Alde errepublikarrean:

Alde errepublikarreko ikusmoldea ezagutzeko, hiru egunkari aztertu dira: *Euzkadi Roja*, kutsu komunista zuena (PCE-Euzkadi); *El Liberal*, ideia errepublikar-sozialistak defendatzen zituen eta *CNT del Norte* izeneko egunkari anarkista.

Oro har, hiruretan, gerraren lehenengo hilabeteetan, emakume milizianoen ohorea eta ausardia goraiatzen dira, baina gutxi gorabehera azarotik aurrera emakumearen presentzia gerran erretagoardian kokatzen dela azpimarratzen da. Horrela, gerra hasieran fronteetan zeuden emakumeen ausardia azpimarratzen da, askatasunaren alde borrokatzeagatik armak hartu zituztelako. Horren adibide ditugu ondorengo artikulua: emakumeen ohorea azpimarratzen duen lehenengo idatzia 1936ko abuztuaren 13an argitaratu zen *El Liberal* egunkarian. Idazki horretan nolabaiteko aldarrikapen historikoa egiten zen esanez gerrara joateko ausardia Independentzia gerratik zetorkiola espainiar emakumeari. Horri jarraituz, Gerra Zibileko emakume milizianoak aurrekoak borrokatu ziren ideia berdinegatik borrokatzen ziren: herriaren askatasunaren eta eskubideen defentsaren alde; eta helburu horrekin bizitza sakrifikatzeko gai ziren, laztantzeko zituzten esku berberekin armak hartuta.

¹⁸ *Decreto del Departamento de Sanida*, 1936/XI/24, Bilbo.

¹⁹ *Acta de la reunión celebrada por los jefes de las distintas secciones de departamento de Defensa, presididos por el señor consejero*, 1937/I/22, GE-178-18, Bilbo.

Hilabete batzuk geroago, 1936ko azaroaren 25ean, egunkari berdinean «Salud, mujeres españolas» izenburupean, emakume milizianoek egoerak eskatutako maila erakutsi zutela azpimarratu zen, eta beraiekiko miresmena aitortu zen. Azkenik, 1937ko hasieran, *Euzkadi Rojan* Pasionariak andre milizianoen eta erretagoardiakoen alde eginiko diskurtsoa aipatu zuten eta kantu bat eskaini zieten.

Baina, gerrako lehenengo hilabeteetan emakume milizianoen ausardia goraiatu ez ezik, defendatu ere egin zituzten, prostitutak zirela salatzen zuten iritzien aurrean. Adibidez, 1936ko abuztuaren 22an *El Liberalen* «Heroínas» izenburuarekin Antonio Zozayak andre milizianoen garbitasuna defendatu zuen eta emakume burgesen aurka egin zuen. Horrekin batera, 1936ko abenduaren 24an *Euzkadi Rojan* Pasionariak Sobietar Batasuneko emakumearen feminitatea azpimarratu zuen eta Espainiako emakumea zegokion mailan ipini behar zela adierazi zuen.

Ikusi ahal izan den bezala, batez ere *El Liberal* egunkarian aurki daiteke hasierako andre milizianoen aldeko giroa eta *CNT del Norte* egunkarian, aldiz, ez da aipatu ere egiten, egunkari hori 1936ko bukaeran sortu baitzen. Hala ere, esparru guztietan bezala, joera orokorrarekin bat ez datozen iritziak ere badaude; hots, gerraren hasieran emakumearen lana erretagoardian baliagarriagoa izango zela defendatzen zuten iritziak ere agertu ziren. Adibidez, 1936ko abuztuaren 16an *El Liberalen* Indalecio Prietok idatzitako artikulua batean, «La guerra en la retaguardia» izenburupean, ideia hori defendatu zuen.

Esan bezala, azaro ingurutik aurrera desagertu egin zen lan-jantzi urdina zeraman emakumearen defentsa eta goraiamena, eta horren orde emakumeari buruzko artikulua gehienek haren eginkizuna erretagoardian zegoela defendatu zuten. Ildo horretan, ugariak dira emakumea erretagoardian parte hartzeri animatzen duten artikulua, haien zeregina derrigorrezkoa dela aipatuz eta «gizonak fronteetara eta emakumeak erretagoardiara» ideia behin eta berriz errepikatuz.

1936ko azaroaren 12ko *El Liberalen* argitaratu zen aipatutako ideiarekin lehenengo adibidea. Artikulu horretan, emakumeak erretagoardiako lanetan parte hartzeri bultzatzeko arazoien artean semeen maitasuna eta etorkizuna aipatu zituen Matilde Zapatak.

Ondoren, 1936ko bukaeran eta 1937ko hasieran, artikuluek emakumeari dei zuzena egiten zioten erretagoardiako hainbat lanetan parte hartzeri joateko, iraultzaren garaipena eta faxismoaren porrota beraien eskuetan ere bazegoela esanez. Horren adibide ditugu 1936ko abenduaren 31n, *CNT del Nortean* emakume libertario argentinar batek idatzitako artikulua; 1937ko urtarrilaren 30ean *Euzkadi Rojan* Pilar Hernandorena FUEko (Federación Universitaria Escolar) kideak argitaratutakoa, 1937ko otsailaren 27an *El Liberalen* «¡No se haga usted de

rogar!» izenburua zuena edota Juventudes Libertariasek 1937ko martxoaren 23an *CNT del Norten* idatzitakoa.

1937ko martxoaren 2ko *Euzkadi Rojan*, Bartzelonan, Lehenengo Dibisio erregularraren desfilea gauzatu zela azaltzen da, eta hor aipatzen da «gizonak frontera eta emakumeak gerrako industriara» idatzita zeramaten kartelak zeudela.

Ondoren, 1937ko apirilaren 11n *CNT del Norten* Lola González izeneko Juventudes Libertariaseko kide baten artikulua indartsua agertzen da. Pasioz betetako idatzia da: gerrako lehenengo hilabeteetan Gipuzkoako frontean borrokan ibili zela azaldu ostean, emakume milizianoak goraiatzeko dituzten eta emakumeei erretagoardiara joateko deiak egiten die; gainera, gerran parte hartzen ez duena traidoretzat hartzen du.

Emakumea erretagoardiara bultzatzen duen azkeneko artikulua 1937ko maiatzaren 5ean argitaratu zen *Euzkadi Rojan*. El Comité de Mujeres de Euzkadi contra la guerra imperialista y el fascismo erakundeak idatzi zuen, eta emakume bizkaitarrei erretagoardiako lanetan parte hartzeko dei egiteaz gain, hainbat argibide eman zituzten (izena non eman behar zen, brigada bakoitzak hogeita bost kide izango zituela...).

Horrela, azaro ingurutik aurrera emakumeari zuzendutako artikulua gehienek haren zeregina erretagoardian zegoela azpimarratzen zuten eta emakumeen hainbat erakundek ere beren burua eskaintzen zuten lan horiek betetzeko. Adibidez, 1937ko apirilaren 30ean *Euzkadi Rojan* Hogar de la Mujer Moderna elkarteak Euzkadiko gobernuari bere burua eskaini zion ordurarte gizonak betetako erretagoardiako lanak beraiek gauzatzeko. Horrez gainera, 1937ko maiatzaren 29an, egunkari berdinean El Comité de Mujeres de Euzkadi contra la guerra imperialista y el fascismo erakundeak bere burua eskaini zuen Bilbo ingurua gotortzeko eta lan horretarako, emakumeei dei ireki bat egin zien.

Beraz, esandakoa laburbilduz, iritzi aldaketa bat antzematen da: lehenengo hilabeteetan andre milizianoen ausardia goraiatzetik azaro ingurutik aurrera emakumearen eginkizuna erretagoardian dagoela defendatzera pasatu ziren. Baina, inoiz ez da emakumea mespretxatzen edo zapaltzen: arrazoiak azaldu gabe, emakumea frontetik erretagoardiara pasa dela zehazten da eta inoiz ez da emakume milizianoek jokaturako paperaren kontrako hitzik edo esames gaiztorik argitaratzen.

Aipaturako ildoari hiru egunkariak jarraitu bazioten ere, *CNT del Norten* emakumea baztertzea kritikatzeko duten iritziak ere aurkitu daitezke. Esate baterako, 1937ko otsailaren 11n «Guerra a la mujer» izenburupean, Euzkadiko gobernuak emakumea frontetik kentzea eta erretagoardian oso garrantzi txikia ematea salatzen da. 1937ko maiatzaren 16ko artikuluan, batean,

Bilboko defentsarako gotortze lanetan emakumeek parte hartzea kritikatu zen, gerrako beste lan batzuk hobeki egin zitzaketelakoan emakumeek.

Orain arte, egunkari hauetan, emakumeak gerran izan zuten eginkizuna agertu bazaigu ere, prostituzioaz eta soldaduen moralaz ere idatzi zuten, eta transmisio sexualeko gaixotasunek zekartzaten arazoetan sakondu zuten.

Gai hau *CNT del Nortek* soilik jorratu zuen eta 1937ko otsailetik aurrera hasi ziren azaltzen artikuluak. Soldaduaren moralala eta ezjakintasuna salatzen ziren: milizianoak frontean askatasunaren alde borrokan jokatzaren bere bizitza, baina, gero, denbora librean, eta heriotzaren arriskua hurbil ikusita, erretagoardiako prostituzio-etxe eta kabaretetara jotzen zuten plazer une baten bila, bere printzipioak bazterturik. 1937ko otsailaren 18an argitaratutako artikulu batean irakur daiteke ideia hori: Zubik, Juventudes Libertariaseko kideak, idatzi zuen eta artikuluaren izenburua jada nahiko esanguratsua da: «La ignorancia y la inmoralidad». Horrez gainera, Ricardo Sanzek 1937ko maiatzaren 7an idatzitako artikuluan, soldaduen moral bikoitza salatzen du, «La moral y la guerra» izenburupean.

Gainera, prostituzio horren ondorio zuzena gerran transmisio sexualeko gaixotasunen hedakuntza zela zehazten zen (1937ko martxoaren 17ko artikulu batean ikus daiteke). Artikulu batzuetan, irtenbideak proposatu ziren: arestian aipatutako 1937ko martxoaren 17ko artikuluan, esate baterako, egileak defendatu zuen Juventudes Libertariaseko kultura eta informazio sailak gaixotasun benereok zabaltzea geldiarazteko Ingalaterrak I. Mundu Gerran hartutako neurriak ezarri behar zituela (~~gaixotasun horien~~ gaixo egon arren fronteetara joatea, fronte eta kuarteletan botikin antibenereok ezartzea eta gaixotasun horiek ezkututzen zituzten soldaduak gogorki zigortzea.). Arestian aipatutako Ricardo Sanzen artikuluan («La moral y la guerra», 1937-05-7), arazoari irtenbide kultural bat ematen zaio: milizianoek prostituziora ez jotzeko, frontean denbora-pasa osasuntsu eta kulturalak ezarri behar zirela dio (antzerkiak, liburuak, moralaren inguruko medikuen hitzaldiak...).

Oro har, aipatutako artikuluetan nagusiki prostituzioaz eta milizianoen moralaz hitz egiten bazen ere, hainbat kasutan prostituzioari buruzko gogoeta soziala ere egin zen: denek jotzen zuten ezinezkotzat prostituzioa sistema kapitalistaren barnean desagertzea, jardueraren jatorria ezberdintasun soziala eta moral sexual burgesa baitziren. Ondorioz, prostituzioa desagerrarazteko, berdintasun ekonomikoa, justizia eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortu behar ziren, eta sexua modu askean bizitzea oztopatzen zuten ideia moralak desagertu behar ziren. Beraz, prostituzioaren deuseztatzea soilik berdintasun eta askatasunezko erregimen batean lortuko zen. Batez ere Juventudes Libertariaseko kultura eta informazio sailak idatzitako artikuluan agertzen dira ideia horiek: 1937ko martxoaren 17an argitaratu zen, izenburu esanguratsuekin, «La prostitución en la guerra».

Ikusi ahal izan den bezala, prostituzioari eta soldaduaren moralari buruzko artikuluek gehienbat Juventudes Libertariasek idatzi zituen, eta badirudi, Euskadi errepublikarrean, erakunde honek egin zituela gaixotasun benereok eta prostituzioa gutxitzeko ahalegin hezitzaile gehienak. Horren adibide ditugu Bilbon antolatutako konferentziak gazteei, eta zehazki milizianoei, prostituzioaren inguruko informazioa eskaintzeko. 1937ko otsailaren 17an eman zen hitzaldi horietako baten berri *CNT del Norte*: iragarki batean zehazten zen konferentzia noiz, non eta zeri buruzkoa izango zen.

Orain arte aipatutakoa ikusita, egunkari horietan argitaratutako iritzietan antzematen da transmisio sexualeko gaixotasunen zabalkundean ez zutela emakumea erruduntzat jotzen. Baina, hala ere, hainbat artikulua soltetan leporatzen zaio emakumeari errua. Adibidez, 1937ko maiatzaren 2an *CNT del Norte* argitaratutako artikulua batean, emakumeak kasu batzuetan jokatu zuen paper desagokoa salatzen da, besteak beste, milizianoei fronteetara laguntzean (emazte, neskalagun eta abarren kasuan). Kasu horietan, faxismoaren kontrako borrokan lagundu baino gehiago oztopatu egiten zutela zioten, miliziano horiek haragikerietan besterik zentratzen ez baitziren.

Azkenik, alde errepublikarreko egunkari hauetan, preserbatiboan iragarkiak eta gaixotasun benereok tratatzen zituzten medikuen iragarkiak ere agertzen zirela aipatu behar da, zehazki *El Liberalen*.

Alde nazionalen:

Alde nazionalen ikusmoldea ezagutzeko ere hiru egunkari aztertu dira: *Norte* egunkari falangista, *Pensamiento Alavés* ideia katoliko eta tradizionalen aldekoa eta *La Libertad*. Azkeneko hori uztailaren 18ko altxamendura arte egunkari liberal-errepublikarra izan zen, baina hortik aurrera Araba nazionalen alde zegoenez, haien ideiak defendatu behar izan zituen.

Transmisio sexualeko gaitzak zabaltzearen inguruko albiste eta iritziek bi ildo jarraitzen dituzte egunkari horietan: alde batetik, alde errepublikarrean bizi den egoera kritikatu eta exageratu egiten da eta bestetik, haien eremuan ere antzeko egoera bizi dela erakusten da.

Lehenengoari dagokionez, alde errepublikarreko egoera kritikatzeko zuten artikuluetan etsaien eremuan egoera kaotikoa bizi zela aipatzen zen. Ildo horretan, 1936ko irailaren 1ean *La Libertaden* argitaratutako artikulua batean, Aragoira bidalitako tropa errepublikarren artean osasun egoera txarra nagusitzen zela zioten. Geroago, 1937ko otsailaren 27an, *Pensamiento Alavésen*, Pasionariak Valentzian botatako diskurtsoa azaltzen da zeinetan erretagoardia prostitutetatik garbitu behar zela zioen. Baina, alde errepublikarrean erabateko eromen egoera bizi zela batez ere *Norte* egunkarian azaltzen da: 1937ko apirilaren 15ean argitaratutako artikulua batean, «Mientras unos mueren de hambre otros banquetean» izenburupean, soldadu

errepublikarrak gosez hiltzen ari ziren bitartean, buruzagiek erretagoardiako herrietan etengabeko orgiak eta bazkariak egiten zituztela aipatzen da. Egun batzuk geroago, 1937ko apirilaren 21eko artikulua batean, gerrako itsasontzietan errepublikarrek izugarritzko besta eta orgiak antolatzen zituztela zioten.

Horrez gain, gogorki kritikatu zuten emakume milizianoen parte hartzea gerran. Hasteko, 1936ko urriaren 8an *La Libertad*eko artikulua batean, gizonezkoak gerrara joateko Errepublikak emakumeak miliziano janztea salatzen da; ondoren, 1936ko urriaren 20an egunkari berdinean, emakume milizianoak prostituzioarekin lotzen dira, Madrilen itxitako kabaret eta tabernak emakume milizianoak berriro lanean hasteko ireki zirela esanez. Geroago, 1937ko urtarrilaren 4an *Pensamiento Alavésen*, degenerazioaren sinboloak zirela aipatzen da eta hilabete geroago, egunkari berdinean, andre milizianoen presentziak eta existentziak gizartearen eta ohituren gainbehera erakusten zuela azpimarratzeaz gain, alde errepublikarreko gizonen ahultasunaz hitz egiten da. Gainera, esandako guztiari barre egiteko helburuarekin idatzitako hainbat aipamen gehitzen zaizkio: adibidez, 1937ko urtarrilaren 26an *Norten*, Errepublikak Madrilen *cigarrerak* batailoi bat egiteko bildu zituela aipatzen da. Emakume milizianoak kritikatzeko dituen azken artikulua *Norten* argitaratu zen 1937ko ekainaren 5ean: andre milizianoek (*pasionarias rojas* deitzen diete) ezer gutxi egiten dutela eta hirietan ibiltzea frontea baino gehiago gustatzen zaiela azpimarratzen da.

Emakume milizianoak kritikatzearekin batera, errepublikar fronteetan tropak mistoak zirenez, etengabeko ezkontzak eta dibortzioak gauzatzen zirela aipatzen da, ezkondu ostean hiru egun libre lortzen zituztelako («La bonita manera de hacerse el amor en el frente rojo», *La Libertad* 1936-10-14). Ildo horretatik jarraituz, etsaien eremuan dibortzioa eta abortua legezkoak izatea sekulako izugarrikeriatzat jo zuten, besteak beste, 1936ko abenduaren 21ean *La Libertaden* argitaraturiko artikulua batean: maitasun librean bizi zirenez, emakumeak gizon guztienak ziren eta honek izugarri zabaltzen zituen gaixotasunak. Ondorioz, emakumeak gaixo zeudenez, haiengandik jaiotako umeak «ergelak edo tontoak» izango ziren. Egoera horretan, alde errepublikarreko gizonak emakumea erabat menperatu eta degradatu egin zuela azpimarratu zuten artikuluetan.

Bigarrenari dagokionez, alde nazionalak etsaiek bizi zuten eromen egoera kritikatu bazuen ere, beraien eremuan ere antzeko zer edo zer bizi zela salatu zuten hainbat albiste eta iritzik. Hasteko, gerra piztu eta berehala, Arabako gobernadore zibilak, Fernández Ichasok, pornografia liburuxkak debekatu zituela dakigu 1936ko abuztuaren 4an *La Libertaden* argitaratutako albiste bati esker. Ondoren, abuztuaren bukaeran *Pensamiento Alavésen* eta abuztuaren 21etik aurrera *La Libertaden*, iragarri zen Arabako osasun-zaingoak, Gasteizko Cuchi kalean, transmisio sexualeko gaixotasunak dohainik tratatzeko gela bat ipini zuela.

Hortik aurrera Arabako gobernadore zibilak kanpaina moralizatzaile sendo bati ekin zion: 1936ko azaroaren 1ean *La Libertaden* agertu zenaren arabera, Fernández Ichasok neska zerbitzariak zituzten tabernak itxiarazi nahi izan zuen eta ondoren, 1937ko otsailaren 4an *Pensamiento Alavése*k aipatu zuen hainbat lokal itxi zituela, bertan prostituzio klandestinoa gauzatzen zelako (esate baterako, Cuchillería kaleko La Italiana, Machete plazako Mercedes Lavillaren etxea...). Bi ekimen horiez gain, 1937ko maiatzaren 19an *Pensamiento Alavése*k beste ekimen moralizatzaile baten berri eman zuen: zinemetan gauza immoralak egiten zituzten bikoteak salatzeke eskatu zien hiritarrei.

Honekin guztiarekin batera, moralitateari eta ohituren garbitasunari eusteko deiak aurkitzen dira komunikabideetan. *Pensamiento Alavés*en 1938ko uztailaren 19an argitaratutakoa da artikulu sutsuena: Palentziako apezpikuak alde nazionaleko neska gazte eta alargun batzuen lotsagabekeria salatu zuen (mutilak tentatzen zituzten beraiekin joateko, hanka eta besoak estali gabe zeramatzen, arropa estuak erabiltzen zituzten, kalean erretzen zuten...).

Azkenik, aipatzekoa da alde nazionaleko egunkarietan alde errepublikarrean baino askozaz gutxiago direla gaiaren inguruko idatziak.

Ondorioak

Legearen eta prentsaren azterketa apal hau egin ostean, Espainia mailan bezala (testuinguruan azaldutakoaren arabera), Euskadin ere Gerra Zibilean parte hartu zuten bi aldeek gaixotasun benereok sortutako arazoaren aurrean ezberdin jokatu zutela antzematen da: ezinezkoa da zalantzan jartzea bi aldeek pairatu zutela arazoa, baina bata isiltasunerantz jo zuen eta besteak, aldiz, ageriago utzi zuen.

Bientzat zen kaltegarria batailoietan arazo hori zutela onartzea, baina nazionalen artean egoera beraien ideien erabat kontrakoa zen. Hori zela eta, arazoaren berri ematen diguten adierazpenak hagitz urriak dira eta isiltasuna izan zen egoeraren aurrean hartutako jarrera, Espainia mailan bezala. Hala ere, alde nazionalen gaixotasun benereoen zabalkuntza ekiditeko legerik ezarri ez bazen ere eta prentsan ere gaiaren inguruko iritziak urriak badira ere, kontuan hartu behar da Arabako gobernadore zibilak aurrera eramandako kanpaina moralizatzailea. Baina hori transmisio sexualeko gaitzekin baino gehiago nazionalen ideia moralekin lotuago dagoela pentsa daiteke.

Alde errepublikarrean, aldiz, arazoa desagerrarazteko edo gutxitzeko ahalegin irekiagoa egin zen: gobernuak hainbat neurri hartzeaz gain, hainbat talde ezkertiarrek egin zituzten milizianoa informatzeko eta hezteko saiakerak, eta prostituzioaren gaia ere ukitu zuten. Beraz, Euskadi errepublikarrean Espainia errepublikarreko antzeko jarrera erakutsi zen: lan honetan

testuingurua azaltzean aipatu den bezala, Espainian gobernu errepublikarrak gaitz horiek gutxitzeko legeak ezarri zituen eta talde ezkertiarrek arazoaren irakurketa sakonagoa egin zuten, prostituzioaren inguruko gogoeta eginez.

Baina, alde nazionalean ez bezala, Errepublikak bere fronteetan emakume milizianoekin kontatu zuen, eta badirudi presentzia femenino horrek arazoa eragin ziola. Esan bezala, emakumea 1936ko udazkenetik aurrera fronteetatik desagertu zen eta erretagoardiara pasatu zen. Gobernuak horren alde egiteko arazoien artean, bat transmisio sexualeko gaixotasunak zabalduz zihoazela izan zen, eta horrela andre milizianoak prostituzioan zebiltzan ideia hedatu zen.

Lan honetan irakurri ahal izan denez, ezkertiar batzuek hainbat emakume milizianok hurbilekoei frontera laguntzean jokatu paper eskasa salatu zuten. Jakina da fronteetan sexu harremanak egon zirela, baina hauek harreman sentimental batzuen barnean zeuden. Sexu harremanak egon izanak ez du andre milizianoak fronteetan prostituzioan jarduten zirela esateko biderik ematen, eta ikusi ahal izan denez, gaixotasun beneroen jatorri masiboa erretagoardian zegoen, zehazki, prostituzio-etxeetan. Horren froga argiena da emakume miliziano gehienak desagertu arren, gaixotasunek zabaltzen jarraitu zutela; eta, gainera, prostituzioaren eta gaitzen inguruko artikuluak zein milizianoa informatzeko saiakerak 1937ko otsailetik aurrera hasi ziren prentsan agertzen, hots, ia andre milizianorik gelditzen ez zen unean.

Bibliografia

- Alcalde, C. (1976): *La mujer en la Guerra Civil española*, Cambio 16, Madril.
- Eslava Galán, J. (1993): *El sexo de nuestros padres. Un libro indispensable que ayuda a comprender muchos misterios de nuestra historia reciente*, Editorial Planeta, Bartzelona.
- Folguera Crespo, P. (1997): «Las mujeres durante la Guerra Civil», in Garrido González, E.: *Historia de las mujeres en España*, Síntesis, Madrid, 515-525.
- Gallego Méndez, M^a T. (1983): *Mujer, Falange y Franquismo*, Taurus ediciones, Madril.
- Guereña, J.-L. (2003): *La prostitución en la España contemporánea*, Marcial Pons Ediciones de Historia, Madril.
- Muñoz Rivero, M^a T. (1996): «La sanidad militar en Euskadi durante la Guerra Civil (1936-1937)», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, 1. Tomoa, 213-320.
- Nash, M. (1999): *Rojas: las mujeres republicanas en la Guerra Civil*, Grupo Santillana de Ediciones, Madril.
- Nash, M. eta Tavera, S. (arg.) (2003): *Las mujeres y las guerras. El papel de las mujeres en las guerras de la Edad Antigua a la Contemporánea*, Icaria editorial, Bartzelona.

Núñez Roldán, F. (1995): *Mujeres Públicas. Historia de la prostitución en España*, Temas de Hoy, Madril.

Strobl, I. (1996): *La resistencia en Europa Occidental. España*, in Strobl, Ingrid *Partisanas. La mujer en la resistencia armada contra el fascismo y la ocupación alemana (1936-1945)*, 39-74.

Egunkariak

CNT del Norte (1936-1937), Órgano de la Confederación Regional del Trabajo-AIT, Bilbo.

Euzkadi Roja (1936-1937), Órgano del Comité Central del Partido Comunista de Euzkadi, Bilbo.

- *El Liberal* (1936-1937), Bilbo.

- *Norte*, Diario Nacional Sindicalista, 1937, Gasteiz.

- *Pensamiento Alavés* (1936-1937), Gasteiz.

- *La Libertad*, Periódico liberal. Fuerista. Diario de Vitoria. Diario más antiguo de Vitoria (1936-1937), Gasteiz.

Legeak

Oficio de Alfredo Espinosa a Fernando Unceta, 1936/X/15, M-874/2-8, Bilbo.

Oficio de Alfredo Espinosa a Fernando Unceta, 1936/XI/04, M-865/2-8, Bilbo.

Decreto del Departamento de Sanidad. Bilbo, 1936/XI/24.

Acta de la reunión celebrada por los jefes de las distintas secciones de departamento de Defensa, presididos por el señor consejero, 1937/I/22, Euskadiko Artxibo Historikoa, GE-178-18, Bilbo.